



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruñean, 2001eko martxoaren 31n

36 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Foru Lege proiektua. Lurzatiak edo lurzatietan dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubidez baliatzeko eskualdeak mugatzen ditu. Osoko Bilkurak onetsitako osoko zuzenketa (3. or.).
- Nafarroako Foruzaingoan polizia judizialeko unitateak antolatzeko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak onetsitako osoko zuzenketa ordezeko testuarekin (3. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen du. Osoko Bilkurak onetsitako osoko zuzenketa ordezeko testuarekin (4. or.).
- Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen du. Osoko Bilkurak baztertutako itzultzeko osoko zuzenketak (4. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko. Osoko Bilkurak bazter utzia (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, Mozioak eta Adierazpen Politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun laguntza emateko behar adina farmazialari lanpostu sar dezan plantilla organikoan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa publikoetako langileen negoziazio kolektiboa abian jar dezan. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Valtierra zenbait etxe erortzearen ondorioz neurriak har ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da musikako goi mailako ikasketak arautzeko foru lege proiektu bat egin dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak bazter utzia (7. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da batzorde bat era dezan, hezkuntz etapetan hainbat ikasgairen irakaskuntza aztertzeko. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza sisteman etorkinen beharrei erantzuna emateko arau-proiektu bat aurkez dezan. Hezkuntza eta Kultura Batzordeak bazter utzia (8. or.).
- Zisjordania, Gaza eta Jerusalemeko lurralde palestinarrei buruzko adierazpen politikoa. Osoko Bilkurak berretsia (8. or.).
- Adierazpen politikoa, Nafarroan gertatzen diren lan istripuei buruzkoa. Osoko Bilkurak berretsia (9. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua. Lurzatiak edo lurzatietan dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeko eskualdeak mugatzen ditu

OSOKO BILKURAK ONETSITAKO OSOKO ZUZENKETA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko martxoaren 22an egindako Osoko Bilkuran, lurzatiak edo lurzatietan dauden eraikinen salerosketa eta trukeetan lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatzeko eskualdeak mugatzen dituen Foru Lege proiektua Foru Diputazioari itzultzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, baztertu egin da proiektu hori.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Nafarroako Foruzaingoan polizia judizialeko unitateak antolatzeko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK ONETSITAKO OSOKO ZUZENKETA ORDEZKO TESTUAREKIN

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko martxoaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua Parlamentuko Taldeak Nafarroako Foruzaingoan polizia judizialeko unitateak antolatzeko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa, ordezkoko testua zuena, onestea erabaki zuen. Osoko zuzenketa hori 2001eko martxoaren 22ko 30 zen-

bakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, aintzat hartutako Foru lege proposamen gisa bideratuko da ordezkoko testua.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen du

OSOKO BILKURAK ONETSITAKO OSOKO ZUZENKETA ORDEZKO TESTUAREKIN

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko martxoaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketa, ordezeko testua zuena, onestea erabaki zuen. Osoko zuzenketa hori 2001eko martxoaren 30eko 35 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.6 artikuluan ezarritakoarekin bat, aintzat hartutako Foru lege proposamen gisa bideratuko da ordezeko testua.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Foru Lege proiektua, Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen du

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO ITZULTZEKO OSOKO ZUZENKETAK

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko martxoaren 22an egindako Osoko Bilkuran, Foru Parlamentari Milagros Rubio Salvatierra andreak eta Euskal Herritarrok eta Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko taldeek Nafarroan saltoki handien antolamendua arautzen duen Foru

Lege proiektuari aurkeztutako osoko zuzenketak baztertzea erabaki zuen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko martxoaren 22an egindako Osoko Bilkuran, farmazien zerbitzua arautzen duen apirilaren 25eko 16/1997 Legea aldatzeko Foru Lege proposamena baztertea erabaki zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikulua xedatutakoa betez, Erabaki hau argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun laguntza emateko behar adina farmazialari lanpostu sar dezan plantilla organikoan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko martxoaren 22an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun laguntza emateko behar adina farmazialari lanpostu sar dezan plantilla organikoan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da oinarrizko osasun laguntza emateko behar adina farmazialari lanpostu sar dezan plantilla organikoan

1.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Gobernuaren plantilla organikoan sar ditzan oinarrizko laguntzako behar beste farmazialari postu, Farmazia Laguntzari buruzko azaroaren 16ko 12/2000 Foru Legeko 41.5 artikulua aplikatuz.

2.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du 2001eko lan eskaintza publikoan sar ditzan aurreko idatz-zatian aipaturiko postuak.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa publikoetako langileen negoziazio kolektiboa abian jar dezan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko martxoaren 22an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa publikoetako langileen negoziazio kolektiboa abian jar dezan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da enpresa publikoetako langileen negoziazio kolektiboa abian jar dezan

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du arloka sailkatu ditzan foru administrazioaren enpresa publikoak, eta abian jar dezan langileekiko negoziazio kolektiboa. Horrela, hitzarmen kolektiboak sinatu ahalko dira, "enpresakoak", eta Nafarroako Gobernua enpresaburu gisa arituko da gehiengo kapitala duen enpresa publikoetan.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Valtierrako zenbait etxe erortzearen ondorioz neurriak har ditzan

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2001eko martxoaren 22an eginiko bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Valtierrako zenbait etxe erortzearen ondorioz neurriak har ditzan".

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Valtierrako zenbait etxe erortzearen ondorioz neurriak har ditzan

Nafarroako Parlamentuak, Valtierrako azken gertaeren aurrean Nafarroako Gobernua haxe egitera premiatzen du:

1. Irizpen bat presta dezan lehenbailehen mugimenduei buruz eta horrelakorik ez gertatzeko eta lurra sendotzeko bitarte egokiei buruz.

2. Valtierrako Udalarekin lan egin dezan, elkarrekin ordaintzeko egindako azterlanak, bai eta lurretan esku hartzeko neurriak ere, Valtierrako erorketa arazoei aurre egiteko eta aurrerago ez gertatzeko egokitzen jotzen den kasuetan.

3. Valtierrako Udalarekin lan egin dezan aparteko laguntzak emateko Valtierrako lur higiduren ondorioak, pertsonengan nola ondasunetan, pairatu dituzten edo pairatzen ari diren bizilagunendako.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da musikako goi mailako ikasketak arautzeko foru lege proiektu bat egin dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da musikako goi mailako ikasketak arautzeko foru lege proiektu bat egin dezan".

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko

martxoaren 20an egindako bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2001eko otsailaren 6ko 9 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da batzorde bat era dezan, hezkuntz etapetan hainbat ikasgairen irakaskuntza aztertzeko

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da batzorde bat era dezan, hezkuntz etapetan hainbat ikasgairen irakaskuntza aztertzeko".

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko

martxoaren 20an egindako bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko urriaren 31ko 88 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza sisteman etorkinen beharrei erantzuna emateko arau-proiektu bat aurkez dezan

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEAK BAZTER UTZIA

Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hezkuntza sisteman etorkinen beharrei erantzuna emateko arau-proiektu bat aurkez dezan".

Hezkuntza eta Kultura Batzordeak, 2001eko

martxoaren 20an egindako bileran, aurkeztutako mozioa baztertu zuen. Mozio hori 2000ko azaroaren 27ko 104 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Zisjordania, Gaza eta Jerusalemeko lurralde palestinarrei buruzko adierazpen politikoa

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko martxoaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Zisjordania, Gaza eta Jerusalemeko lurralde palestinarrei buruzko adierazpen politikoa berretsi zuen. Adierazpen politiko hori 2001eko martxoaren 15eko 26 zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Biltzarreko Erregelamenduko 112.1 artikulua ezarritakoarekin bat, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Adierazpen politikoa, Nafarroan gertatzen diren lan istripuei buruzkoa

OSOKO BILKURAK BERRETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2001eko martxoaren 23an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroan gertatzen diren lan istripuei buruzko adierazpen politikoa berretsi zuen. Adierazpen politiko hori Eledunen Batzarrak onetsi zuen 2001eko martxoaren 5ean.

Iruñean, 2001eko martxoaren 27an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Adierazpen politikoa, Nafarroan gertatzen diren lan istripuei buruzkoa

I

2000ko ekainean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak eta Eledunen Batzarrak Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ekimen bat bideratzea onetsi zuen. Ekimen horretan eskatzen zen "Nafarroako Foru Komunitateko Lan istripuak aztertzeke batzorde berezi" bat sor zedila.

Batzorde horrek xede zuen Nafarroako Parlamentuak Foru Komunitateko lan istripuen tasek izandako gorakadaren zergatiak ikertu eta aztertea, eta tasa horiek murrizteko beharrezkoak diren neurri eta ekintzak proposatzea Nafarroako Gobernuari. Beraz, helburua ez zen Legegileak zuzenean parte hartzea lan istripuei aurrea hartzeke lanetan, ezta gai honetan beste erakunde batzuek dituzten eskumenetan esku sartzea ere, arlo honetan erantzukizuna daukaten agenteekin koordinatzeko lan-bat egitea baizik, denen artean eta modu bateratuan arazo larri horri aurre egiteko eta horrek izan litzakeen soluzioak bilatzeko.

Batzorde hori 2000ko ekainaren 30ean eratu zen. Haren lanak urte hartako irailaren 20an hasi ziren, Lanerako Plan bat onestearekin batera. Plan horrek, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldearen ekimenez baita ere, honako gai hauek aztertea ezarri zuen helburu gisa:

- Nafarroako lan arriskuei buruzko diagnostikoa.
- Arrisku handiko jarduera eta sektoreak.
- Lan arriskuen kausak.
- Gai honetan eskumenak dauzkaten erakundeen eginkizunak, beharrianak eta gabeziak.

- Nafarroako Lan Osasunaren Institutuak eginitako ekintzak.

- Lan Ikuskatzaitzaren ekintzak.

- Nafarroako Gobernuaren ekintzak.

Horretarako, erabaki zen aipaturiko Lanerako Planean sartuko zirela zenbait agerraldi egitea eta Batzordearen helburua betetzeko hainbat txosten eskatzea. Batzorde Berezira euren iritzia emateko eta laneko istripuen kausak aztertzeke etorri diren erakunde, organismo eta gizarte-eragileak honako hauek izan dira:

- Nafarroako Lan Osasunaren Institutuko zuzendari kudeatzailea.

- Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioa (CEN).

- Nafarroako Lan Enpresen Elkarte (ANEL).

- UGT eta CCOO.

- Lan istripuen mutuak: Mutua Navarra, Asepeyo eta Fremap.

- Lan Ikuskatzaitza.

- Eraikuntza Sustatzaileen eta Kontratisten Elkarte.

- Eraikuntzako Lan Fundazioa (Nafarroako delegazioa).

- Osasun eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan kontseilariak.

Agerraldi horiek 2000ko urrian eta azaroan izan ziren. Agerraldietara etorritakoek emandako iritzia eta ekarritako dokumentazioa izan dira txosten hau egiteko erabilitako oinarria.

II

Nafarroako lan istripuak aztertzeke Batzorde Berezia, agerraldietara etorritakoek dokumentazioa eta iritzia aztertu ondoren, Espainiako eta baita Nafarroako lehen mailako arazotzat jotzen du lan istripuen tasa hazkorra. Nafarroan, iazko datuen arabera, egoera goibela da oso, aurreko urteetan bezalaxe; izan ere, 46 hildako izan ziren (oro har, lan baldintza txarren ondorioz), 1999an baino 16 gehiago. Hildakoak eragin zituzten istripu horietatik, lanpostuan 33 gertatu ziren, eta 13 lanerako bidean. Halaber, bajak eragin zituzten 15.536 lan istripu izan ziren; hau da, aurreko urtean baino 1.089 gehiago. Lan istripuen tasek izan-

dako gorakada % 8koa izan da 1999rekiko (ikus 1. grafikoa).

Istripu-indize handiek eragiten dituzten ondorio lazgarriak ikusirik, jarduera-sektore guztiekin koordinaturiko eta batera eginiko zenbait ekintza jorraztea aztertu behar dugu, arrazoi ezberdinak direla-eta behar bezala garatzen ari ez diren Legeko xedapenetan gehiago sakontzeko. Izan ere, lan istripuen bilakaerak urtetik urterako goranzko joera horri eusten badio, eta neurri eraginkorragoekin eta ahalegin kolektibo batekin irtenbiderik ematen ez bazaio, gai hau gure gizartearen arazo larri bilaka daiteke, eta, egoerak gainezka egiteagatik, hari aurre egin ezinik ibiltzea suerta dakiguke. Joera horrek atzera egin dezan eta lan istripuen aurkako borroka eraginkorragoa izan dadin nahitaezkoa da, batez ere, Administrazioak gehiago esku har dezala, haren ekimen politiko tinkoagoen bitartez.

Gure Komunitateko lan istripuen tasa gorakada nabarmenak izaten ari da urtetik urtera. NLOIk eskainitako datuen arabera, azken bost urteotan, % 55 ingurukoa izan da lan istripuen gorakada: 1996an baja eragin zuten 9.887 lan istripu erregistratu ziren, eta 2000n 15.536 izatera pasa ziren (ikus 1. eta 2. grafikoak).

Sektorerik kaltetuenetako bat eraikuntzarena da: lan istripu guztien heren bat sektore honetan gertatzen da. Hala ere, Nafarroako populazio aktiboaren % 8,5 besterik ez du hartzen. Istripua izan duten hamar langiletatik bik eraikuntzan lan egiten dute; industrian, ordea, istripua izan duten hamar langiletatik batek. Hau da, sektore honetako langileen % 20k lan istripu bat izaten du.

Zerbitzuen sektorean ere eraikuntzarenean bezain istripu-gorakada kezagarriak izan dira. Zehazki, 1996tik 2000ra bitartean % 80ko gorakada izan dute lan istripuek. Dena den, kontuan izan behar dugu zerbitzuen sektoreko soldatapeko langileen kopuruak ere gorakada oso nabarmena izan duela azken urteotan.

Arazo hau sindikatuen kezka nagusi bilakatu da, agerraldia izan zuten bi sindikatuek agertu zuten bezala. Errealitate lazgarri hau amaiarazteko presako neurriak eskatzea euren lehentasunezko helburuetako bat da. Horrela, behin-behineko lanen tasak altuak izanik, enplegu duinago eta seguruagoak eskatzen dituzte, behin-behinekotasun hori lan istripuen gorakadaren arrazoietakoa dela baiteritzote (behin-behineko kontratuak biderkatu egiten du istripu bat jasateko arriskua).

Bi sindikatuek diotenez, beste kontu batzuk, hala nola Lan Arriskuei Aurrea Hartzeko Legea (LAAHL), aldi baterako laneko enpresen gehiegiz-

ko erabilera eta eraikuntzaren sektorean katean eginiko azpikontratazioa, lan istripuen gorakadaren zergati nagusiak dira.

Paradoxikoa da odol-isuri hori Nafarroan oraindik gertatzea, nahiz eta Nafarroa aitzindari izan osasun sistema publikoan, eta gizarte-ongizateko maila oso onak dituen. Alabaina, egoera horri kontrajarririk, laneko segurtasunik ezaren ondoriozko lesio-kopurua itzela da. Hori, LAAHLek indar hartu zuenetik bost urte igaro badira ere.

Lan Arriskuei Aurrea Hartzeko Legearen edukiak jatorri du Europako gizarte-eragileek eta gobernuek adostasunez finkaturiko Segurtasun eta Osasunari buruzko 1989ko Esparru Zuzentaraua. Zuzentarau hori zela medio egin zen nazioarteko eta, bereziki, Europako Batasuneko araudietako eskakizunetik egokitzapena. Horrela, egiazki garatua dagoen herri batek asmo handiko apustua egin zuen modernitatearen alde, laneko segurtasun eta osasunari dagozkion ekintzetan erabateko aldaketa egiten saiatuz; lan istripuen aurrean defentsa- eta babes-izaerako politika egitetik egiazki aurrea hartzeko kultura batera pasaz.

Hala ere, LAAHLaren indar-hartzeak ez du, zoritxarrez, lan istripuen murrizketarik ekarri gure herrian, ezta Nafarroan ere, lan istripuen tasak goranzko joera etengabea erakutsi baitu, Nafarroako Lan Osasuneko Institutuaren txostenek agerian utzi duten bezala.

Bestalde, erakunde horrek eta sindikatuek eginitako hainbat azterlanen arabera, ikusi da enpresaburuen erdiak baino gehiagok ez dituela ezagutzen edo betetzen LAAHLeko oinarritzko hainbat puntu; Nafarroako enpresen % 70ek ez dutela konponbiderako neurriak hartzen lan istripu bat gertatu ondoren; bakarrik enpresen % 7k azaltzen dizkietela euren enplegatuei euren lanpostuko berriazko arriskuak; lan istripuen % 40 lanaren lehen hiruhilekoan gertatzen direla; eta gertatzen diren istripuen erdiak aldi baterako kontratuak dauzkaten langileek izaten dituztela.

LAAHLa eta lan osasuneko gainerako araudiak langileen osasun eta segurtasun eskubidearen printzipioan oinarritzen dira. Printzipio hori betetzea botere publikoei dagokie, bermeak emateko arauak ezarri eta bete daitezten begiratzera behartuta baitaude; baina enpresaburuei ere badagokie, segurtasun-betebeharra baitaukate. Horrela, osasuna langileen eskubidetzat jotzen da, eta osasuna babestea, berriz, enpresaburuen betebehartzat. Beraz, gai horri buruzko araudia betetzeko erantzukizuna enpresaburuek eta Administrazio Publikoak daukate, partekatuta.

Administrazio Publikoari dagokio Legearen berri ematea eta bete dadin zaindu eta eskatzea. Dena den, langileak eta euren ordezkariak ez daude erantzukizunetatik salbuetsirik; izan ere, horiek, prebentzioko delegatuaren figuraren bitartez, soldatadunen eskubideen bermatzaile dira, eta horiek defendatu ahal izateko eskumenak eta eginkizunak esleituko zaizkie.

Agerraldietara etorritakoek azalduakoa ikusirik, lan istripuak aztertzeko batzorde bereziak jotzen du Nafarroako enpresetan oro har prebentzioari dagokionez ez dela planifikatzen, Legearen ezarpena oso eskasa dela, eta enpresen sektorea oraindik ez dagoela prebentzioaren kultura murgilduta. Gainera, kontuan izan behar da LAAHLaren muina kultura horretan oinarritua dagoela, ezartzen duen irizpidearen arabera arriskuen prebentzio-neurriak ezin baitira lanean osasunak pairatzen dituen erasoetatik defendatzeko bitartateko hutsak izan, prebentziokoak baizik; hau da, mehatxu horien jatorria desagertaraztea izan behar dutela helburu, mehatxu horiek gerta ez daitezen.

Enpresaburuak ere oraindik ez daude kontzientziatuta arrisku-prebentzioaren arloan euren langileei prestakuntza emateak duen garrantziaz; arlo horretako araudia areago jotzen da espediente burokratiko gisa enpresaren jardun onerako egiazko beharrian gisa baino. Gainera, prebentzio-kostua, inbertsioztat hartu beharrean, gastuztat jotzen da.

Horrela, bada, arazoaren jatorria bere gain arrisku maila oso handiak hartzen dituen gizarte konponzale bat da, zeinak ez baitu gogoetarik egiten istripuen giza ondorio eta kalte materialen kostu handiaz. Oraindik ere, kostu baxuko eta kalitate handiko produktu-kantitate handia eskatzen segitzen dugu, eta, beraz, ez da hautematen lan arriskuen prebentzioa edo ingurumenaren babesa bezalako faktoreek betekizun horiek betetzen dituzten produktuak eskatzera bultzatzen ditzaketen kontsumitzaileak, nahiz eta horretarako haiek prezio handiagoa ordaindu behar izan.

Beraz, Batzorde honen aburuz, gizarte konponzalea gizarte aurreikuslea bilakatzearen aldaketa lortzen ez dugun bitartean, hemen proposatzen diren neurriak eztabaidatu, baztertu edo ahaz daitezke.

Ildo horretatik, lan osasunean zeresana daukaten agente guztiek Legeak ezartzen duen prebentzio-kultura horretaz jabetu behar dute, eta nork bere erantzukizuneko esparruan aplikatu behar du. Horrela baizik ez dira ezarriko lan istripuen tasen joerak atzera egin dezan beharrezkoak diren oinarriak; izan ere, frogatuta dago lan arris-

kuei aurrea har dakiekeela, Europako beste herrialde batzuetan gertatzen ari den bezalaxe; horietan, heriotzak eragin dituzten istripuak gure herrian baino hiru aldiz gutxiago dira, eta istripukopurua jaisten ari da azken urteotan (% 20 inguru); hain zuzen ere, herrialde horietan prebentzioaren kultura kalitateari edo produktibitateari loturiko helburuei ematen zaien garrantzi berberarekin integratzen ari delako enpresetan, aplikatzen den araudia Espainiakoa bera izanik.

III

Lan istripuak eragiten dituzten kausak askotarikoak diren arren, Batzorde honetara etorri zirenek bereziki aztertu zituztenak jorratuko ditugu. Halaber, egoki iritzi diogu batez ere lan segurtasuneko gaiak azpimarratzeari, funtsean lan istripuak direlako istripuei buruzko datuak izugarri igoarazten dituztenak, alde batera utzirik, eraginkortasun eta lehentasun arrazoiengatik, beste arrisku-faktore batzuk, garrantzi gutxiagokoak ez direnak, hala nola lanbide-eritasunak, ergonomia (lanpostua pertsonari egokitua egotea), jatorri psikosozialeko lanbide-arriskuak eta abar.

Eta ezin dugu ahaztu iaz gertaturiko lan istripuen % 18 gehiegizko esfortzuek eraginikoak izan zirela, hau da, osasunaren gorabehera edo kalte horiek lana pertsonari behar bezala egokiturik ez egoteagatik sortu zirela; funtsean, zama fisikoak manipulazteagatik, lan-eritmoengatik, edo langileek eginiko mugimendu errepikakorrengatik.

LAN ARRISKUEI AURREA HARTZEKO LEGEA EZ BETETZEA

Nafarroako Lan Osasuneko Institutuak eta sindikatuek eginiko azterlanen eta Lan Ikuskatzailetzak eskuraturiko txostenaren arabera, enpresaburuak oinarritzko puntutan LAAHLa nabarmen urratu dutela antzeman da, hala nola langileen prestakuntza eta informazioari, makineria eta lan-tokiak gaur egungo araudira egokitzeari eta prebentzio-plangintzarik ez egoteari dagokionez.

LAAHLe indarra hartu zuenetik izan diren prestakuntza-jarduerak ugaritu diren arren, informazioa eta prestakuntza gainditzeke dauden ikasgaiak dira oraindik ere, eta ziurta dezakegu oraindik ez direla enpresaburu eta langile askorenganaino iritsi.

Kasu batzuetan, prestakuntza ez da egokia, ez edukiaren ikuspegitik ez erabilitako tekniken ikuspegitik ere, eta haren eragin kognitibo, afektibo eta psikomotoreak eskasak edo deusezak dira. Bestalde, ordutegiak, kostuak eta produkzio-erak prestakuntzaren prebentzio-teknika zaildu ere egiten dute.

Prebentzio-zerbitzuei dagokienez, zerbitzu hori oraindik hitzartu gabe daukaten enpresa gehiegi dago oraindik ere, nahiz eta hitzartu dutenen kopurua igotzen ari den. Normalki, hitzarmena egiten dute lanbide-gorabeherak babesten dizkien mutuarekin; dena den, prebentzio-zerbitzu pribatuetara ere jo ohi dute helburu horretarako.

Bestalde, zerbitzu horien funtzionamenduaren eraginkortasuna oso kaskarra da, bitarteko eta baliabide gutxi dauzkatelako zerbitzatu behar dituzten enpresen kopuru handiarekin alderatuz, eta, kasu askotan, utzikeriaz jokatzeko dute euren prebentzio-jarduerari dagokionez, eta legeko betekizunak betetzera mugatzen dira; hori dela medio enpresek lan arriskuei aurrea hartzeko Plan bat (enpresetan arriskuak antzemateko eta, horrela, horiei aurrea hartu ahal izateko funtsezko tresna) legeaz izan dezaketen arren, araudia betetzeko baizik ez bada erabiltzen eta haren jarraipen eta gaurkotzerik ez bada egiten, litekeena da eraginkortasun apaleko neurri bihurtzea, kontuan hartu behar baita Plan horrek dinamikoa izan behar duela, etengabe gaurkotu eta berrikusi beharrekoa.

Prebentzio-zerbitzuen gabezia horiei aurre egin behar zaie, eta, horretarako, adituen talde bat sortu behar da, Prebentzio Zerbitzuen Erregelamenduak proposaturiko antolaketa-modu ezberdinak eta haiek Nafarroako industria-multzoarentzat egokiak ote diren aztertu eta ebaluatzeko. Azterlan horrek balio izan behar du Nafarroako enpresa txiki eta ertainetako enpresaburuak euren enpresarako antolaketa-modurik eraginkorrenari eta errentagarrienari dagokionez orientatzeko. Azterlanaren beste eginkizunetako bat izanen litzateke orientabidea ematea Nafarroan prebentzioak izan beharko lukeen antolaketa-egiturari buruz.

Ikusi ahal izan da Nafarroako Lan Osasuneko Institutuko, Lan Ikuskatzaitzako eta prebentzio-zerbitzuetako teknikarien artean irizpide ezberdinak daudela arriskuen ebaluazioari berari dagokionez ere. Horregatik, komenigarria izanen litzateke lan-batzorde bat eratzea, honako hauetako langileek osatua: Industri Departamentua, NLOI, prebentzio-zerbitzuak, Lan Ikuskatzaitza, sindikatuak eta enpresaburuak. Batzorde horren helburuak honako hauek izan litezke:

- Arriskuak ebaluatzeko prozedura eta metodologia prestatzea.
- Ebaluazioa, prebentzio Plana eta istripuen ikerketa aurkezteko formatuak definitzea.
- Prebentzio-ekintza arrazoitzeko irizpideak ezartzea.

LAAHLa bereziki enpresa txiki eta ertainetan urratzen da. Aholku emateko eta araudiaren ezarpenaren jarraipena egiteko programaren arabera, zeina 1997an hasi baitzuen NLOIek Nafarroako 1.400 enpresa txiki eta ertainetan, erdiak baino gehiagok ez zuten ezagutzen edo urratu egiten zuten LAAHLa; enpresen % 70ek ez zuten neurri zuzentzailerik hartzen lan istripu bat gertatu ondoren; gure Komunitatean gertatzen diren lan istripu guztien % 50 enpresen % 3an metatzen zen, eta soilik enpresen % 7k azaltzen zizkieten euren langileei nori bere lanpostuko arrisku berariazkoak.

Ildo horretatik, argigarria eta oso kezagarria da Nafarroako Sustatzaileek eta Eraikitzaileek euren txostenean egindako estimazioa; zehazki, esaten zuten ia eraikuntza-enpresa batek ere ez dituela betetzen gaur egungo legediak laneko segurtasun eta osasunaren arloan ezarritako betekizunak; hain zuzen ere, ezin duelako, Legeak ezarritako ekintza eta betekizun guztiak betetzeko behar den antolaketa- eta teknika-maila ez izateagatik. Errealitate hori are dramatikoago bilakatzen da kontuan hartzen bada arriskurik handieneko sektorean gertatzen dela, istripu larri eta hilgarri gehien gertatzen den horretan.

Lan Ikuskatzaitzak emandako datuek ere errealitate hori berresten dute. Horrela, 1999an erakunde horrek ikerturiko 219 istripu larri eta hilgarrietatik, kasuen % 50ean araudia urratu zen, eta horixe izan zen kausa ezbehar horietako 67tan; hau da, ikuskaturiko istripuen % 30 baino gehiago araudia ez betetzeagatik gertatu ziren.

Aurreragoko agerraldi batean Osasun kontseilariak eman zituen beste datu batzuek agerian uzten zuten enpresen % 23k bakarrik daukatela prebentzio plan baterako idatzizko konpromisoa; ozta-ozta % 43k dutela prebentzio zerbitzu baterako antolaketa-egituraren bat, zeina ezosoa eta desegokia baita kasu askotan; bakarrik enpresen % 24tan antolatzen zirela arriskuen prebentziarako prestakuntza-ekintzak; edo enpresen % 15ek ematen ziela langile berriei lanpostuko arriskuei buruzko informazioa.

Aurkeztutako datu eta txosten horiek guztiek agerian uzten dute LAAHLe indarra hartu zuenetik bost urte igaro ondoren arau hori urratu egiten dela oraindik, eta urratze hori oztopo saihestezina dela Nafarroako Foru Komunitateko lan istripuen tasa altuak murrizterakoan. Beraz, ezinbestekoa da enpresaburuak legea betetzera behartzeko beharrezkoak diren prozedurak eta bitartekoak edozein ekintza baino lehen ezartzea, eta Administrazioa da, bere ahalmenak erabiliz eta betebeharrak betetz, behar diren bitarteko eta baliabide guztiak jarri behar dituena, Nafarroako langileen

segurtasuna eta osasuna enpresaburuekin batera zaintzeko.

Horri buruz, azpimarratzekoa da ikuskatzaileen presentzia handiagoak –Nafarroako Gobernuak Jomuga Planaren esparruan egin zituen ikuskatzailetza-lanak kasu— posible egin duela istripu-indize handiena zeukaten enpresetan indize horiek % 12ko murrizketa izatea.

Alabaina, gaur egun Lan Ikuskatzailetzak dituen giza baliabide urriekin (11 ikuskatzaile), ezinezkoa da Nafarroako enpresa-kopururik handien iristeko egonen den zaintza- eta aholku-beharrizan handiari aurre egitea; Lan Ikuskatzailetzak ez dauka ahalmenik legeak bere ardurapean ezartzen dituen eginkizunak modu eraginkorrean betetzeko. Baliabide-urritasun hori gainditzeko, erakunde horrek, zeina Estatuko Administrazioaren menpekoa baita, behar adina langile kontratatu beharko lituzke. Izan ere, kontuan hartu behar da Nafarroan 16.000 enpresa baino gehiago daudela, eta horiek 220.000 langileri ematen diotela lana; gainera, Ikuskatzailetzaren eginkizunak ez dira soilik prebentzio gaitara mugatzen.

Bestalde, Foru Administrazioak, era berean giza baliabide urriekin (NLOIko plantilla finkoa 14 teknikarik osatzen dute), zaindu, prebenitu eta aholku-emateko eginkizunak areagotu egin behar ditu, bere baliabideak gaur egungo beharrizanetara egokituz. Edonola ere, ikuskatze-eginkizunaren gehikuntza horrek, zigortzeko bitartekoak sendotzera ez ezik, Nafarroako enpresaburuei prebentzioaren kultura helarazteko aholku eta informazio gehiago ematera bideratua egon behar du.

Badakigu oso zaila dela arrisku prebentzioa enpresetatik berez sortzea: norbaitek hartu behar du bere gain lan arriskuei aurrea hartzeko eta lan baldintzak hobetzeko motibazio, babes eta aholkuak organizazio guztiari emateko eginkizuna.

Horrela, bada, Batzorde honen ondorio nagusietako bat da LAAHLa enpresaburu multzo kopurutsu batek neurri handian ez duela betetzen; hori dela-eta, berriro ere adierazi behar da ezinbestekoa dela Nafarroako enpresen jarraipena eta kontrola egiteko asmo zorrotzagoko planak taxutzea, eta enpresaburu nahiz langileei prestakuntza, informazioa eta aholkuak emateko bideak sendotzea.

ENPLEGUA ALDI BATERAKO IZATEA

Aldi baterako kontratuak istripua izateko arriskua biderkatu egiten dutela egiaztatu da. Hori argi eta garbi agertzen dute NLOIaren datuek, erregistratua baitago lan istripuen erdiak baino gehiago

aldi baterako kontratuak zeuzkaten langileei gertatu zitzaikeela. Horien artean, % 80 laneko lehen hiruhilekoan gertatzen dira (ikus 3 eta 4. grafikoak), eta horren zergatia, nagusiki, behin-behineko kontratuak dauzkaten langileei euren lanpostuko arriskuei buruzko informazioak eta horietarako prestakuntzarik ez ematea da.

Lan merkatuaren eta kontratazio-moten araubidea Espainiako Gobernuari dagozkion eskumenak dira, eta, horretarako, CCOO eta UGT sindikatuek aurkeztu dizkiete jadanik Gobernuari eta ugazabei euren proposamenak; haietan, enplegua egonkorragoa eta seguruagoa izan dadin lortzeko neurriak eskatzen dituzte. Beraz, Batzorde honen helburua ez da Nafarroako Foru Komunitateak eskumenik ez duen gai batean sartzea, baina komenigarria da Nafarroako enpresek gaur egungo lan kontratuak nola erabiltzen dituzten aztertzea, horiek gaizki erabiltzeak ere eragina baitu istripu-tasan.

Kontratazioari buruz INEMek eman dituen datuen arabera, iaz Nafarroako enpresek eginiko 100 kontratutik 38, gutxienez, hiru hilabetekoak edo gutxiagokoak ziren. Hau da, 2000n sinaturiko hiru kontratutik batek ez zuen hiru hilabete baino gehiago iraun, eta kontratuen beste heren bat iraupen mugagabekoa izan zen (behin-behineko enplegua, enpresak beharra duen bitartean; gehienez ere, urtebetekoak izan ohi dira). Nafarroan iaz sinaturiko 183.374 kontratuetatik, 17.420 (% 9,5) baizik ez ziren iraupen mugagabekoak izan; gainerakoak, 165.954 (% 90,5), behin-behinekoak izan ziren. 1999an, kontratu mugagabeak % 10,3 izatera iritsi ziren.

Datu horietatik lortzen den ondorioa da kontratazioan gehiegizko errotazio eta kateatzea dagoela, langile berak zazpi kontratu edo gehiago sinatzen dituelako lanpostu bat bera betetzeko. Sindikatuen ustez, aldi baterako kontratuak gehiegikeriaz erabiltzen ari dira, enpresetako beharrian finkoei aurre egiteko gehiegitan erabiltzen baitira; horregatik, kasu horietan mugagabeko kontratu egonkorak bihur daitezten eskatzen dute.

Atal hau bukatzeko, ziurtatzen dugu lan prekarietatearen eta arriskuaren artean zuzeneko kausa-efektu harremana dagoela, eta, horregatik, plantilletan prekarietate baldintzetan dauden langileen kopuru handia ere, hein batean, lan istripuen gorakadaren eragile dela. UGT eta CCOO sindikatuak, arazo honetaz jabetzen baitira, jadanik jorratu zuten, Nafarroako Gobernuarekin eta CENekin sinaturiko Egonkortasunaren eta Enpleguaren aldeko Akordioan; bertan, helburuak zehazten ziren, enplegua gehitzeko eta lanpos-

tuen aldi baterakotasuna eta prekarietatea murrizteko asmoz.

Beraz, komeni da berriro esatea ugazabek eta arlo honetan eskudun diren administrazioek euren ahaleginak areagotu egin behar dituztela gai honetan, aldi baterako kontratuen gehiegizko erabilera amaiarazteko eta laneko egonkortasuna eta segurtasuna sustatzeko.

ERAIKUNTZAREN SEKTOREKO AZPIKONTRATZIO ETA PREKARIETATEA

Eraikuntzaren sektorea da lan istripuek gehien kalteturikoa. Iaz lanpostuan hil ziren 33 langileetatik (laneko bidean izandako istripuak kontuan hartu gabe) 12k sektore honetan ziharduten, eta Nafarroan guztira izandako lan istripuen heren bat eraikuntzan gertatu dira, nahiz eta, lehen adierazi den bezalaxe, populazio aktibo guztiaren % 8,5 besterik ez duen hartzen. Gainera, istripu horietan izandako lesioen norainokoa larriagoa izan ohi da beste sektoreetan izandakoekin alderatuz. Sektore honek ere hartzen ditu Nafarroan izandako lan istripuen % 50 bildu eta enpresen % 3 osatzen duen enpresa-multzo horretako ia guztiak.

Bestalde, lan prekarietatea gehien jasaten duen sektorea eraikuntza da, gainontzeko sektoreekiko alde handiz: bere 15.000 langileen % 70ek behin-behineko kontratua daukate. Bestalde, gutxi gorabehera beste 7.000 langile dauzka, autonomoak direnak. Obrarik gehienetan, baina ez beti, kontratu mugagabeak dauzkaten bakarrak obrako arduraduna eta burua dira.

Katean eginiko azpikontratazioaren arazoa beste batzuei erantsita agertu ohi da, hala nola destajua, aldi baterako laneko enpresak erabiltzea edo sektoreak duen atomizazio handia. Azken ezaugarri horri dagokionez, aipatzekoa da Nafarroan 1.800 eraikuntza-enpresa inguru daudela, eta % 95ek baino gehiagok 25 langile baino gutxiago dituztela; gehienak, 1.278 enpresa, 10 langile baino gutxiagokoak dira.

Arrazoi horregatik, txosten honek arreta bereziz aztertu du sektore hori, zalantzarik ez baitago egunak joan egunak etorri sektore horretan gertatzen diren istripu tamalgarriek gizartean benetako alarma pizten dutela, eta, bestalde, eraikuntzan gertatzen diren lan istripuak murriztea benetan lortuko balitz, arazo larri hori konpontzeko lehen urratsak emanak egonen lirakeelako; izan ere, sektore honetako istripu kopuru handia da lan istripuen tasak handitzen dituena.

Eraikuntzaren arloan katean egiten den azpikontratazioak (arlu hori arautzeko lege-esparrurik ez egoteagatik), plantillen desartikulazioa eragin

du, eta, ondorioz, sektorea desegituratuta eta atomizatuta dago. Kasuen heren batean baino gehiagotan, langileak eta enpresak bereizterik ez dago, eta horrek izugarri zailtzen du segurtasun-arauak aplikatzea; horrela, enpresaburuaren erantzukizuna lausotu egiten da. Gainera, horixe da legearen urrapena guztiz hedatua egotearen arrazoi nagusietako bat. Hori kezagarriagoa da kontuan hartzen denean azpikontraturiko enpresetan gertatzen direla Nafarroako istripu larrien eta hildakoak eragiten dituztenen % 95.

Sindikatuak Diputatuen Kongresuan aurkeztutako ekimen batek Eraikuntzaren sektoreko Azpikontratazioa arautzeko Lege Proposamen baten testu osoa jasotzen zuen. Lege Proposamen horrek egiten duen araupetzeak kateatzea debekatzen du; alegia, azpikontraturiko obra azpikontraturiko enpresak berriro azpikontratatzea, osoki nahiz partzialki. Halaber, administrazio baimena emateko eta eraikuntza enpresak erregistratzeko tresna batzuk ezartzen dira; sektorean aldi baterako laneko enpresak erabiltzea debekatzen da, eta enpresek arau hori urratzen badute haiek zehatzeko prozedurak ere arautzen dira.

Nafarroako lan istripuak aztertzeko Batzorde Bereziak presako deritzo Lege Proposamen horren onespenerari, eta, horregatik, Nafarroako Gobernua premiatzen du Diputatuen Kongresuari proposamen bat helaraz diezaion, hura onesteko parlamentu-eztabaida presakoa izan dadin eskatzeko.

Dena den, ekimen horretaz gain, badaude beste zenbait berariazko arau, sektore honetan indarra izan arren haren izaeraren ondorioz oraindik ere urratu egiten direnak. Horregatik, beharrezkoa da bai enpresaburuari bai langileei prestakuntza eta informazioa emateko tresnak sendotzea, horretarako, adibidez, prebentzio lurralde-delegatuen figura sortuz, sindikatuak eskatzen ari diren bezala. Gai horri dagokionez, azpimarratzekoa da emaitza positiboak izan zituen esperientzia bat; hain zuzen ere, Benidormeko "Terra Mítica" jolas-parkea eraikitze gaizatu zena. Obrak hogeit hilabete iraun zuen, eta, denbora horretan zehar, prebentzio-delegatuak izan ziren, langileei eta enpresaburuari prestakuntza eta informazioa ematen. Horren emaitza izan zen ondorio larririk gabeko bi lan istripu besterik ez zela izan.

IV

HARTU BEHARREKO NEURRIAK

1.- Lan eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaile-tzako Lurralde Batzordeak Estatuko Administra-

zioaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko lankidetzaren eta elkar-ulertzerako gune den aldeetik egin beharreko eginkizunak gehitu ditzan eta haietan sakondu dezan premiari bedi Nafarroako Gobernua.

2.- Enpresaburuak eta sindikatuak premiari bidez negoziazio kolektiboan lan arriskuen prebentziarako delegatu sektorialaren figura sortzea erabaki dezaten, LAAHLaren 35. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Lehentasuna eraikuntzaren sektoreari ematea gomendatzen da.

3.- Lan Osasuneko Prestakuntza Zentro bat sor bedi, prestakuntza teoriko eta praktikoa emateko, eta zentro horretarako behar adina baliabide tekniko eta material eta giza baliabide bidera bidez. Zentro horren beharra honako alderdi hauek gauruzatuz legoke:

- Prebentzioko delegatuen prestakuntza eta birziklatzea.

- Enpresaburuaren eta arduradunen prestakuntza eta birziklatzea.

- Suhiltzaileak eta Administrazioeko eta enpresetako langileak suari aurre egiteari dagokionez prestatu eta birziklatzeko beharra.

- Arriskuko langileak (anbulantziatutako gidariak, polizia, suhiltzaileak) ibilgailuak segurtasunez gidatzeko prestatzea.

- Berriazko arriskuak dauzkaten langileei prestakuntza ematea eta, besteak beste, kasu kasuko lanbide agiri edo diplomak ezartzea:

- a) Orgatila igotzaileetako gidariak.

- b) Garabietako gidariak (garabiak dorre nahiz zubi tankerakoak edo autopropulsatuak izanik).

- c) Herrilan-makinatutako gidariak.

- d) Produktu fitosanitarioen aplikatzailea.

- e) Produktu kimikoen maneiatzailea.

- f) Lehen sorospenetako aditua.

4.- Mutuak premiari bidez sindikatuen eta langileen parte-hartzearekin egin dezaten prebentzio-jarduerak, mutuetako zuzendaritza organo kolegiatueta batzorde paritarioak (sindikatuak-enpresaburuak) eratuz. Horretarako, NLOlaren prebentzio jarduerak eta horiek helmuga duten "xede-populazioa" definitu behar ditu, mutuek NLOlko jarraibideen arabera taxutu ditzaten euren jarduerak-programak. NLOlaren eta mutuen artean behar bezalako koordinazioa egon dadin prebentzio-jardueran, batzorde paritario bat eratuko da, besteak beste honako puntu hauek jorratzeko:

- Mutuek aurkeztutako programak aztertzea.

- Eginiko jarduerak kontrolatzea.

- Programaren eraginkortasuna baloratzea.

5.- Nazioko Gobernua premiari bedi mutuek Gizarte Segurantzaren kudeaketako entitate laguntzaile diren aldetik dituzten eginkizunak eta besterenak diren prebentzio zerbitzuei dagozkienak bereizteko araudia sor dezan.

6.- Nafarroako Lan Osasuneko Institutua eta Lan Ikuskatzailetza beharrezkoak diren giza baliabideez hornitu bidez, legeak jasotzen dituen eginkizunei eraginkortasunez aurre egin ahal izan diezaizkien.

7.- Lehentasunezko Jarduketa Planaren (hau da, Jomuga Planaren) egiazko garapena, lan istripu tasarik handieneko enpresetan.

8.- LAAHLa betetzen dela zainduko duen fiskaltza berezi bat era bedi. Istripu oso larriak eta hildakoak eragiten dituztenak gertatzen direnean jardun eta ikertu beharko du. Nafarroatik Estatuko Gobernua premiari bedi figura hori sor dezan.

9.- Estatuko Gobernua premiari bedi lanbide gorabeherei dagokienez bonus-malus sistema ezar dezan enpresen kotizazioetan, eta lanbide gorabeheren ondoriozko aldi baterako ezgaitasuna gorabehera arrunten ondoriozkoarekin pareka dadila, bajako lehen hamabost egunak enpresaburuaren kontura izan daitezken.

10.- Aldi baterako laneko enpresetako istripu tasari buruzko erregistro estatistikoa alda bedi, eta berriazko estatistikak presta bidez, muturreko prekaritate-egoeretako errealitatea zein den ezagutu ahal izateko. Enpresa horietako istripu tasari buruzko jarraipena eta urteroko berriazko azterlanak egin bidez.

11.- Ikastetxeetan hezkuntza- eta prestakuntza-programak presta bidez etorkizunean langile izanen direnek lan arriskuak nola saihestu jakin dezaten, eta etorkizunean lanpostuko oinarriko segurtasun neurriak gogoan izan ditzaten bideraturiko prebentzio kultura ezar bekien. Programa horiek jadanik bide-hezkuntzaren arloan existitzen direnak bezalakoak izan daitezke.

12.- Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak, haren menpeko erakunde autonomoek eta enpresa publikoek ez dute inolako kontraturik sinatuko aldi baterako laneko enpresekin.

13.- Lanpostu bakoitzaren arabera osasun azterketa berriazkoak egin bidez, lanbide eritasunak izanik arrunt gisa erregistratzen direnak agerian gera daitezken.

14.- ERAIKUNTZAREN SEKTORERAKO NEURRIAK

a) Nafarroako Gobernua premiatu bedi Diputatu Kongresuari proposamen bat helaraz diezaion, sektore honetako azpikontratazioa arautzeko lege proposamen bat onesteko parlamentu-etzabaida presakoa egin dadin eskatzeko.

b) Proiektuetan langileen segurtasuna eta osasuna aintzat har bedi.

c) Eraikuntza-enpresa seguruak lor bitez; horrek esan nahi du behar bezalako makineria eta ekipoa, langile gaituak eta lan-prozesu seguruak izan behar dituztela.

d) Arreta berezia ematea etorkinei prebentzioaren arloko prestakuntzari eta informazioari dago kienez.

Administrazio Publikoek sustaturiko obrak:

a) Obrak egitean Legea betetzen dela bermatzeko, segurtasun eta osasun azterlanak egiteko behar adinako aurrekontu-kontsignazioa egon bedi.

b) Segurtasun eta osasun azterlanak egitean kalitatea eska bedi: obra bakoitzeko berariazko arriskuei egokitu behar zaizkie eta orokorkeriak saihestu behar dituzte.

c) Lan arriskuen prebentzioaren esparruan enpresak kalifikatzeko oinarriak ezar bitez. Kalifi-

kazio hori istripu kopuruaren arabera izan liteke (enpresa kontratista+azpikontratista eta autonomoak); obraren norainokoarekin erlaziona liteke, eta exekuzio fasean segurtasun eta osasun esparruko koordinatzaileak eginiko prebentzio-balorazioan oinarritua izan liteke.

d) Lehiaketetan parte hartzen duten enpresak lan arriskuen prebentzioaren esparruan daukaten enpresa-kalifikazioaren arabera balioets bitez.

e) Lan arriskuen prebentzioaren esparruko betebeharrak betetzeari buruzko bermea eska bekie enpresa lizitatzaleei. Berme hori euren prebentzio zerbitzuko ziurtagiriaren bitartez edo kanpo-ikuskapenaren emaitzaren bitartez (prebentzio zerbitzu berekia edo berariaz izendaturiko langile bat baldin badaukate) eman ahalko da.

f) "Laneko segurtasun eta osasunaren eta lan arriskuen prebentzioaren arloko kontrol eta jarraipena egiteko batzorde" bat era bedi, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio publikoek lizitaturiko obretarako. Batzorde horren osaera eta eginkizunak eta hark jarduteko beharrezkoak diren funtsen gaikuntza "Lankidetzaz Hitzarmen" baten bitartez zehaztuko dira. Hitzarmen hori Foru Administrazioak, enpresaburuek eta Askatasun Sindikalari buruzko Lege Organikoari jarraituz autonomi erkidegoaren esparruan ordezkari mailarik handienekoak izatearen ezaugarria duten sindikatuek sinatuko dute.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat..... 6.300 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 150 ». Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 185 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--